

PATXI BERGARA ETA MATHIEU IRIART

I-ENERREKO SORTZAILEAK

«Ipar Euskal Herrian energia trantsizioa behar da, eta estatuak ez du egingen»

Legearen aurrean enpresa forma du I-Enerrek, baina egiazki, energia trantsizioa sustatzeko herri mugimendua izatea da haien asmoa. Urriaren 5ean aurkeztu zuten beren burua jende aurrean, Bizi! mugimenduak Ziburun antolatutako Alternatiba Zokoa ekimenaren barruan. Patxi Bergara eta Mathieu Iriart, sortzaileetako birekin mintzatu gara elkarteak Angelun daukan egoitzan.

| UNAI BREA |

Argazkiak: Gaizka Iroz

Nondik etorri zen I-Ener sortzeko ideia?

Patxi Bergara: Bakoitza bere aldetik hasi ginen, gero kontaktuan sartu ginen. Nire aldetik, lehen nahia izan zen ekimen bat sortzea burujabetzaren inguruan. Burujabetza, oro har. Gero ezagutu nuen GoiEner [ikus ARGIA 2.420], eta pentsatu nuen: zergatik ez horrelako ekimen bat Iparraldean? Eztabaidak izan dira gure artean eta ez dugu GoiEnerren gauza bera egin, baina ideia hori zen. Frantzia mailan EDF izan da beti monopolioa izan duena elektrizitate alorrean, eta gaur egun, liberalizatua baldin bada ere, hemengo biztanleek ez dakite aldatzen ahal dela. Euskaldun gisa Frantziarekiko menpekotasuna bada hori ere.

Mathieu Iriart: Hamar urte baizik ez da liberalizatua dela, baina Frantzia oso zentralizatua da dena orokorki, baita energian ere, eta ez da Alemanian edo Danimarkan bezala tokiko enpresen konkurrentzia.

Anitzek ez dakite posible dela beste aukera batzuk hautatzea. Eta badira; hogeit bat hornitzaile dago gaur egun.

Zuek ere hornitzaileak izango zarete?

P. B.: Ez, gu sortzaileak izanen gara, ekoizleak. Horrelako asko badira, eta kasik denek EDFri saltzen diote. Guk ere bai, hasieran.

M. I.: Gure asmoa da oraingoz ekoiztea, eta egun batez banaketa-egitura bat sortzea.

GoiEner etorriko balitz Ipar Euskal Herrira, zirkulu perfektua litzateke, guk ekoiztea haiek saltzeko, eta herritarrei erratea kontratua egiten ahal dutela GoiEnerrekin. Dena izango genuke Euskal Herrian bertan.

Zergatik ekoizle, eta ez hornitzaile?

M. I.: Trantsizio energetikoa da gure helburu nagusia, baina zinez orokorra da helburu hori. Beraz,

erabaki dugun lehen ekintza ekoiztea da. Lehen urratsa izanen da: instalazio kolektiboak egitea panel fotovoltaikoen bitartez. Trantsizioa nahi badugu, autonomia energetikoa beharko dugu, eta horrek erran nahi du herritarrek behar dugula berreskuratu energiaren arloa, baina ezin dugu berreskuratu ekoizten ez dugun energia. Berreskuratu aitzin, behar da energia hemen izan; ez da berreskuratzeko ezer egun.



P. B.: Hasieran GoiEner bezala izan nahi genuen, banatzaileak, baina fite konturatu ginen hori ez zela bidea. Gure espiritua elektrizitate garbia banatzea da, eta gaur egun Ipar Euskal Herrian elektrizitate garbia izan bada, barnealdean, baina ez da kantitate handia.

Non ezarriko dituzue instalazio fotovoltaikoak?

P. B.: Leku zehatzak ez ditugu finkatu oraindik –hasiera batean denak barnealdean izanen dira, hori badakigu–, baina asmoa dugu kolektibitateen edo laborarien teilatu ganean hasteko. Tamaina handiko teilatuak nahi ditugu. Eta ari gara hautetsi batzuekin mintzatzen.

M. I.: Helburua litzateke martxoan lehen panela ezartzea. Hautetsiei ez diegu euro bat ere galdeginen, teilatua baizik, eta gure ustez ezin izanen dute errefusatu, baina denbora beharko da. Gu prest izanen gara; jadanik dirua sartzen ari da, jendeek erraiten dute inbertituko dutela... Ez gara horren beldurrik. Hala ere kanpaina zaila da, errazago izanen litza-tekeelako komunikatzea teiltua identifikatuta dugularik. Baina teiltatua izateko behar dugu diru pixka bat ukan. Orduan, lehen jendeak zinez militanteak dira, gure hurbilekoak, hori da lehen zirkulua, eta bigarren zirkulua izanen dira Ipar Euskal Herriko militante historikoak, beti Euskal Herriaren alde ematen dutenak.

“Gure asmoa da hemen kontsumitzen den energia hemen ekoiztea, baina ez egun bezainbeste. Egun 100 kontsumitzen badugu, aski izan dadila 50”

Mathieu Iriart

Beraz, burujabetzaren ikuspuntutik ari zarete mezua zabaltzen ekologiarenetik baino?

M. I.: Bietatik. Euskal nortasuna eta ekologia. Euskal monetak, EHLGk... jadanik erakutsi dute badela Ipar Euskal Herrian gaitasuna bi mundu horiek biltzeko: euskaltzaleak eta aurrerakoiak edo ekologistak. Gero eta gehiago elkarrekin lan egiten dute lurralde honetan, eta hori baliatuko dugu.

Ekoizpen eredua aldatu nahi duzue, baina kontsumo eredua ere bai. Gutxiago kontsumitzea, alegia.

M. I.: Hori nahi dugu batetik, eta bestetik, gaurko nuklear-petrolio eredutik berriztagarritara pasatu. Gure asmoa da hemen kontsumitzen den energia hemen ekoiztea, baina ez egun bezainbeste. Gaur 100 kontsumitzen badugu, bihar aski izan dadila 50.

Nuklear-petrolio binomioa aipatu duzu, baina elektrizitate sorreraren alorrean bada petroliorik?

M. I.: Ez, petrolio gehiago erabilia da garraioarentzat, baina elektrizitateari dagokionez nuklearra da nagusi, argindarraren %75-80 nuklearretik dator. Erran dute hamar urteren buruan portzentajea erdira jaitziko dela, baina ber energia sortuko dute, guztizko kontsumoa handituko baita.

Elektrizitatearen hiru laurden nuklearretik dator, beraz. Eta gainerakoa?

M. I.: %10-15 hidraulikotik, eta beste %10a berriztagarrietatik: eguzki panel batzuk, haizea oso gutxi...

P. B.: Frantziak erran du “gu izanen gara nuklearraren txapel-dunak”. Nuklearra defendatzen dutenak aski azkarrak dira, eta beti badira argudioak erranez energia berriztagarriak ez direla menperatzen ahal, haiekin ez dela ziurtatua elektrizitatea etxeetara iristea, eta ez dutela bat egiten kontsumo ohiturekin, panelek gehienbat udan ekoiz-

zenbat gara elkartea
Erroa argitaletxea

Gure amaren sekretua

Jenny Lynn Witterick

Goiko maila (B2) ★★★★★



Altzateko Jaunaren elezaharra

Pio Baroja

Gorengo maila (C1) ★★★★★



Harri eta Herri #50

Gabriel Aresti



Zenbat Gara elkartea
Done Bikendi 2 - 4. solairua
Tel: 944 237 591 - Bilbo



Hamar pertsonak sortu zuten I-Ener 2014 hasieran, eta denak borondatez ari dira lanean. Lehen panel fotovoltaikoak ezartzen hasteko diru bilketan murgilduta dabiltza orain. 60.000 euro lortzea dute xede momentuz.

ten dutelako baina elektrizitatea behar delako gehiago neguan. Bestalde, ez da ezker edo eskuin afera, komunistak adibidez nuklearraren alde dira anitz enplegu sortu omen duelako.

Fukushimako istripuak ez du aldaketarik eragin?

P. B: Pixka bat. Batzuek erraten zuten Frantzia behar zirela zentral zaharrak itxi, baina hala ere berriak irekiko dituzte. Eta zaharrak ez dira ixten.

M. I: Horretarako ere gure bidea egiten dugu hemen. Ipar Euskal Herrian energiari dagokionez trantsizioa behar dela ziur gara, eta ziur

gara ere estatuak ez duela eginen, edo ez duela ongi eginen. Guk eginen dugu; euskal herritar gisa hori parada da gure tresna propioak sortzeko.

Hitz egidazue I-Enerren antolakuntzaz. Nola egituratu duzue enpresa?

P. B: Instalazioak egiten hastean teknikari espezializatu bat kontratatuko dugu, baina momentuz ez da langilerik, hamar sortzaile gara eta denak boluntario ari gara. Hasieran kooperatiba izatea nahi genuen, azkenean ez da izanen, baina espiritua berdina izanen da: pertsona bat, bozka bat. Ipinitako kapitala edozein dela. Eta mozkina inbertituko da. Juridikoki SAS delako bat izanen da, akziodunen sozietate sinplifikatua.

M. I: Erran behar da ez gara adituak, eta egin ahala ikasten ari gara. Erreferentziatzat Frantziako ekimen batzuk hartu ditugu; horiek gu bezala hasi dira, deus jakin gabe.

P. B: Etengabeko diru bilketan ari gara. Helburua da 60.000 euro biltzea lehen panelak ezartzen hasteko. Badugu erdia baino gehiago. ■



Nuklearraren zati bat berriztagarriek ordezka dezaten legea egin du Parisek

Europako Ingurumen Agentziak ekainean argitaratutako *Joerak eta proiektzioak Europan 2014* txostenak dioenez, Frantziako Estatua da 2020rako berriztagarrien arloan hazkundea sustatu beharko duen herrialdeetako bat. Zehazki, hazkundea 2005-2012 epealdikoa baino bizpahiru aldiz handiagoa izatea lortu behar duten herrialdeen multzoan dago Hexagonoa.

Ekainean halaber, elektrizitate ekoizpenean berriztagarrien pisu espezifiko handitzeko —eta aldi

berean energia nuklearrarena gutxitzeko— legea aurkeztu zuen Pariseko Gobernuak. Horren arabera, zentral nuklearrek ezingo dute produkzioa handitu —erreferentziatzat 2012ko kopurua hartzen da: 63,2 gigawatio—, eta elektrizitate osoaren %50 sortu behar lukete, oraingo %75en ordez.

Edozelan, Ségolène Royal Ekologia, Garapen Jasangarri eta Energia ministroak ez zuen azaldu nola gutxituko den energia nuklearraren portzentajea, “legeak ez baitu zehazten”.